

ERABAKIA, 2020ko UZTAILAREN 2koa, 1. IRAKASLE ATXIKIAREN PLAZA (PAC8L2-D00002-9) BETETZEKO HAUTAKETA PROZESURAKO ONARTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN AKATS BAT ZUZENTZEKO DENA (2020/06/05eko DEIALDIA)

Egiaztatu egin dira honako

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Irakasle-ikertzaileen arloko errektorearen 2019/02/18ko Erabakiaren bidez, deialdia egin zen lehiaketa publikoaren bidez irakasle atxikiaren plaza hau betetzeko:

Deialdia: 2020/2021

Deialdiaren ordena: 1 (PAC8L2-D00002-9)

Saila: Soziologia II

Jakintza arloa: Soziologia

Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna

Bigarrena.- 2020/07/01ean argitaratu zen hautaketa prozesu horretan onartutako izangaien behin-behineko zerrenda. Zerrenda argitaratu ondoren, Irakasle eta Ikertzaileen Zerbitzuan jaso zen **Diego Carbajo Padilla jaunaren** eskaera, 2020/06/26ko erregistro orokorreko sarrera zigilua zuena. Egiaztatu egin da eskatzailea oker kendu zutela aipatutako zerrendatik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa; Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoa (otsailaren 3ko EHAA); 2011ko maiatzaren 2ko Erabakia, aldi baterako irakasleak eta ikertzaileak kontratatzekeo arautegia argitaratzekoa; eta

2019ko otsailaren 18ko Erabakia, zeinaren bidez lehiaketa publikorako deia egin baitzen Euskal Herriko Unibertsitatearentzako irakasle elkartuen kontratuak adjudikatzeko.

Bigarrena.- Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskumenak eskuordetuta, erabaki hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiarekin bat (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia; otsailaren 3ko EHAA).

Hirugarrena.- 39/2015 Legearen 109.2 artikulua honako hau dio: *“Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”*. Bigarren gertakarian adierazi bezala, oker bat gertatu da hautaketa prozesuan; errore hori aipatutako arauan koka daiteke, eta zuzendu beharra dago.

Adierazitako guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Izandako akatsa zuzentzea 2020ko ekainaren 5ean deitutako Soziologia Saileko irakasle atxikiaren 1. plaza (PAC8L2-D00002-9) esleitzeko lehiaketarako onartutakoen zerrendan. Zerrenda horretan, **Diego Carbajo Padilla jauna** izangai gisa sar dadin, aurkeztutako dokumentazioan deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu baita.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea interesdunei, jakinarazpenetarako adierazitako helbidean, eta Soziologia Sailari, baita kasuan kasuko epaimahaiko idazkariari ere. Har beza kontuan dagokion atalak Irakasle eta Ikertzaileen Zerbitzuan.

ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilbon, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, edo demandatzaileari bere egoitzaren arabera dagokion epaitegian, demandatzailearen beraren aukeran. Horretarako, bi hilabeteko epea dago erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 8.2.a, 10.1.j eta 14.1 Bigarrena artikulua).

Leioan, 2020ko uztailaren 2an



Eskumenak eskuordetuta, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Sin.: Inmaculada Guerricagoitia Marina



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

CONCURSO PÚBLICO PARA LA ADJUDICACION DE CONTRATOS

KONTRATUA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA

IRAKASLE ATXIKIA / PROFESOR ADJUNTO

FECHA PUBLICACION: 01/07/2020

DEIALDIA/CONVOCATORIA:	2020/2021	PROFESORADO ADJUNTO (AYUDANTE DOCTOR/A)
DEIALDIKO DATA/FECHA CONVOCATORIA:	05/06/2020	
DEIALDIAREN Z./N. CONVOCATORIA:	1	
PTO. ESPECIFICO/PTO. ESPEZIFIKOA:	PAC8L2 - D00002 - 9	
SAILA/DEPARTAMENTO:	Sociología II/soziologia II	
JAKINTZA ARLOA/AREA CONOCIMIENTO:	Sociología/soziologia	
HIZKUNTZ ESKAKIZUNA/PERFIL LINGÜÍSTICO:	HIRUELEDUNA (EUSK/ING/GAZT) - TRILINGÜE (EUSK/ING/CAST)	
ARDURALDIA/DEDICACION:	Tiempo completo 8 horas/Arduraldi osoa-8 ordu	

Egin beharreko iharduerak/Actividades a realizar:

Erakunde eta Enpresaren Soziologia / Sociología de las Organizaciones y de la Empresa
Análisi Soziologikoaren Oinarriak / Fundamentos de Análisis Sociológico

RELACION PROVISIONAL DE CONCURSANTES ADMITIDOS / LEHIAKIDE ONARTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA

DATOS PERSONALES	NOTAS
38347 - AMEZAGA ETXEBARRIA ASIER	
34206 - CARBAJO PADILLA DIEGO	
39869 - KORTAZAR BILLELABEITIA JON	



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

CONCURSO PÚBLICO PARA LA ADJUDICACION DE CONTRATOS

KONTRATUA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA

IRAKASLE ATXIKIA / PROFESOR ADJUNTO

FECHA PUBLICACION: 01/07/2020

DEIALDIA/CONVOCATORIA:	2020/2021	PROFESORADO ADJUNTO (AYUDANTE DOCTOR/A)
DEIALDIKO DATA/FECHA CONVOCATORIA:	05/06/2020	
DEIALDIAREN Z./N. CONVOCATORIA:	1	
PTO. ESPECIFICO/PTO. ESPEZIFIKOA:	PAC8L2 - D00002 - 9	
SAILA/DEPARTAMENTO:	Sociología II/soziologia II	
JAKINTZA ARLOA/AREA CONOCIMIENTO:	Sociología/soziologia	
HIZKUNTZ ESKAKIZUNA/PERFIL LINGÜÍSTICO:	HIRUELEDUNA (EUSK/ING/GAZT) - TRILINGÜE (EUSK/ING/CAST)	
ARDURALDIA/DEDICACION:	Tiempo completo 8 horas/Arduraldi osoa-8 ordu	

RELACION PROVISIONAL DE CONCURSANTES EXCLUIDOS / ONARTUKO GABE LEHIAKIDEAK BEHIN BEHINEKO ZERRENDA
CAUSAS DE EXCLUSION

DATOS PERSONALES	ONARTUA EZ IZATEKO ARRAZOIAK
------------------	------------------------------

NO HAY CANDIDATOS EXCLUIDOS